

36ko Gerra. Ekaineko kronika

Bilbo zubirik gabe

Burdinazko Gerrikoa zuloz heteriko gazta baten gisan pasa zuten frankistek. Bilbo arrisku bizian, bi aukera zeuden: borrokatu edo alde egin. Ez zen epopeiarik gertatu. Errepublikanoek hiri industrialia abandonatu zuten ekainaren 18an, zubirik gabeko Nerbioi atzean utzita.

JOSU CHUECA

1936KO URRIAREN 1EAN onartutako Euskal Autonomia Estatutuak ez zuen zehazten Euskadiko hiriburua zein izanen zen. Hala ere, Bilbok hartu zuen horren ardura. Eusko Jaurlaritzak Gernikako Juntetxean zin egin ondoren, Bizkaiko hiriburua izan zen gobernu horren egoitza eta faxistei aurre egiteko sortu zen armadaren aginte leku politiko-militarra.

Bilboko adinekoren oroimenean bizirik zirauen II. Gerra Karlistaren karira izandako setioa, *Paz en la guerra* eleberrian Unamunok maisuki islatu zuena. Baina 1937koa desberdina izan zen. Hiriaren inguruan jarritako defentsa-eraztuna askoz zabalagoa zen arren, Bilbo oso goiz hasi zen abiazioaren eraso lazgarriak jasaten –1936ko irailean izandako estraineko bombardaketari beste batzuek jarraitu zioten, inpunitate handiarekin–. Gainera, errepublikanoek abiazio faxistaren aurrean erakutsitako ahulezia osagai etsigarria izan zen. Horrela, Durango eta Gernikaren aurkako bombardaketez gain, oso gogoan izan beharko genituzke Eibar, Zornotza eta Bilbok jasandakoak. Frankistek abiazioa behin eta berriro erabili zuten, eguraldia lagun zutenean, defentsa lerroa apurtu eta infanteriarekin erasotzeko.

Bilbo defendatzeko jaiotzen Burdinazko Gerrikoa-

Frankistak Bilbon sartzear zedela, hiriburuko sei zubiak lehertu zituzten errepublikanoek.

rekin gertatutakoa da horren adibide. 1937ko ekainean, lehen egunetako eguraldi kaxkarra baretu zenean, hegazkin nazionalak zeruratu ziren, eta hilabete horretako 11. egunetik aurrera jo eta fuego ekin zioten porlanezko sugetzara erasotzeari. Artilleriak eta hegazkinen bonbek Gaztelumendi eta Urrusti arteko eskualdea jipoitu zuten bereziki; ondorioz, soldadu frankistek gerriko ospetsuaren lubakiak gainditu ahal izan zituzten. Hesiaren atzean ez zegoen inolako defentsarik egituratuta eta

Davila eta Bartomeuren soldaduek arazorik gabe egin zezaketen aurrera.

Zirt edo zart Bilborentzat

Gerrikoa zultzearekin batera frankisten mugimenduak zehazten joan ziren hurrengo egunetan. Brigada batzuk Asuatik Algortara mugitzen ziren bitartean, beste batzuk, Deriotik eta Lutxanatik Artxanda aldera jo zuten. Mendixka horren atzean, artilleriak tiramenean zuten Bizkaiko hiriburua. Egoera larria zen, eta frankistek gerrikoa puskatu bezain laster, Lehendakartzaren egoitzan –Carlton hotelean– gailur politiko-militarraren bilkura egin zen. Agirre lehendakariarekin eta hainbat kontseilarekin



batera, Euskal Armadako Estatu Nagusiko Alberto Montaud eta Mariano Gamir Ulibarri bertaratu ziren. Euskal Herrira etorritako kanpoko aholkulari militarrek ere azaldu ziren beraien iritzia emateko, Goriev sobietarra eta Jaureghy frantziarra, besteak beste.

Mota guztietako jarrerak azaldu ziren hortxe. Alde batetik Jose Maria Arbex kapitainarena bezalakoak, amore emateko prest zeudenak. Bestetik, Gorieven tankerakoak, defentsa sutsuaren aldekoak. Tartean bazeuden atzera egitea gomendatzen zutenak, edo inozokeriaz, hegazkinak eta metrailetak eskatzen zituztenak defentsa burutzeko. Eta izanen ziren, Jaureghy bezala, zer egin galdetzen zutenak. Jesus Maria Leizaola Kultura eta Justizia sailburuak –Bilboko azken egunetan gero eta gehiago gailendu zen politikaria– iritzi kontrajarrien artean erabakitzea eskatu zien militarrei. Zirt edo zart egitea, alegia. Goizeko ordu txikietan, hiria defendatzearen aldeko jarrera nagusitu zen.

Defentsatik etsipenera

Horrela, buru militar nagusia zen Mariano Gamir Ulibarri agindu zioten Bilboko defentsa antolatzeako, eraikuntza eta leku estrategikoez baliatuz, gotorlekuak bailiran. Nerbioi gaineko zubiak lehertzeko lanak has zitzaizkien ere agindu zioten militarrei. Izan ere, hurrengo orduetan asmo horien premia areagotu egin zen. Ekainaren 14an, *Flechas Negras* brigada italiarra Plentziaraino iritsi zen. Gatika, Lemoiz eta Gorniz ere faxisten menpe gelditu ziren eta Nafarroako V. brigadak Santo Domingo mendixka eskuratu zuen. Mugimendu horiek ikusita, Gamir Ulibarri Ezkerraldera mugatu zuen Bilbon egin beharreko defentsa, itsas adarra, zubiak lehertarazi ostean, babes-hesi bilakatu nahian.

Egun berean, Gamirrek berak jakinarazi zion gobernu errepublikanoari, sobera zeuden gerra tresnak Kantabria aldera eramaten hasiak zirela. Era berean, hiriburua defendatzeko prest zeudela, jakinik, etsaiaren nagusitasun ikaragarriari aurre egiteko oso aukera gutxi zutela. Hala ere, Agirre lehendakaria eta alder-

Indalecio Prieto

Espainiako Defentsa ministroa zen Indalecio Prieto bilbotarrak hiria nola edo hala defendatzearen jarrerari eutsi zion Valentziatik, sekula iritsi ez ziren laguntzak agintzen zituen bitartean. Gainera, eraman ezin zitezkeen osagai industrialak suntsitzeko aukera ere azaldu zuen, erabaki horren inguruan sortutako eztabaida hauspotuz.

Olaberriako zirkuitua

Gida eskola

Karting-a



ATALAIA JATETXEA



Aritz Ondo, 69 • 20305 Iruñ
Tel: 943 635518 • Faxa: 943 638718
e-posta: info@hotelatalaia.com
web orria: www.hotelatalaia.com

Gainera auzoa, Z/G
20212 Olaberria
☎ 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com

36ko Gerra. Ekaineko kronika

di sozialista, irrati eta egunkarietan egin-dako deien bidez defentsarako gogoia zabaltzen saiatu ziren, baina orduak igaro ahala faxisten besoek gero eta gehiago estutu zuten hiriburuaren gaineko zepoa. Etsipenak jota, Bilbo defendatzea erabaki zutenetik 48 ordu igaro gabe zeudela, asmo hori baztertu zuten agintariek.

Kontuak kontu, nazionalak Artxanda eta Malmasinera iritsi ziren une berean, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen Bilbon ordezkariak uztea –Juan Astigarrabia, Jesus Leizaola eta Santiago Aznarrek osatua–, eta gainontzeko sailburuek Turtzios aldera jo zuten Agirre lehendakariarekin batera. Frankisten erasoak saihestezinak ziren ordurako, eta Madrilen 1936ko urrian gertatu bezala, gobernuak hanka egin behar izan zuen.

Artxandako kasinoa: partidaren azken jokoa

Egun horietan Artxanda bonba artean birrindu zuten frankistek, eta Nafarroako V. brigadak problemarik gabe eskuratu zuen Bilbo gaineko mendixka hori, ekainaren 17an. Baina gau horretan hainbat batailo errepublikanok (Kirikiño, Itxasalde, Itxarkundia...) Artxandako kasinoa, Fuerte Banderas eta Artxandasarri berreskuratu zituzten sekulako kemena erakutsiz. Ez zuten askorik iraun ordea, ordu batzuk beranduago behin betiko utzi behar izan baitzituzten leku horiek, berriz ere frankisten esku. Biharamunean, nazionalak Bilboko beste mendi mugan den Pagasarritik pasatu ziren. Nafarroako I. brigadak lortu zuen mendi horretatik Pastorekortaraino igarotzea, miliziano asturiarrek abandonatu eta gero. Frankistak Bilbo inguratu zuten lekuen menpe, Euskadi autonomoko hiriburuaren patua idatzita zegoen. Egoera horretan, ebakuazioa bizkortzeaz gain, zein eraikuntza eta lantoki suntsitu behar ziren eztabaidatu zuten. Dirudienez, Leizaolak eragin handia izan zuen suntsipenak ahalik eta gehien mugatzeko. Deustuko Unibertsitatean jarrita zeuden lehergaiak, esate baterako, kendu arazi zituen. Lantokiak ere suntsipenetik kanpo geratu ziren eta alde zuzenetik adostutako hainbat leherketa baino ez zituzten burutu,



"Bilbo mendiek osaturiko katiluan datza".

Ernest Hemingway

"Gehien atsegin zuena, berek Bilbo uzterakoan ez zituztela fabrikarik erre eta zubiak suntsitu esatea ohi zen!".

*Ramon Saizarbitoria
(Gorde nazazu lurpean)*

"Donostia, Iruñea, Bilbo, Bartzelona bera, Madril.. beltzen eskuetan zeuden beti".

Txillardeggi (Putzu)

Historiografiak mitoa bilakatu du Burdinazko Gerrikoarena. Nahita gaizki erakia izan zela, ingeniarien traizioa, agintarien utzikeria, denetatik idatzi da historia liburuetan. Halere, Bilbo Handiaren defentsaz ez dira orrialde sobera

Literaturaren argitan

Edorta Jimenez, *Kilkerren hotsak* (2003, Susa)

Botxoa

idatzi gure literaturan, nobelatzeke ezin aproposagoa den gaia aurrean eta inork gutxi egin dio kosk.

Kilkerren Hotsak nobelak, Bilbo eta Mundaka ditu gertaleku. Historiaz blai-tua agertzen zaigu Jimenezen lana, lehen eskuko informazioa darabil, Capa, Steer, Lauaxetaren ingurukoak ezagunak zaizkigu, Alejandro Mallona Mundakako alkateaz ezer gutxi genekien, are gutxiago hilibiez.

Nobela honek, besteak beste, gerraren gaia gaintzen duten bi lan ditu iturri. Jimenez beraren *Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan* dokumental nobelatua eta Alberto Barandiaranen *Gaizkileen faktoria* liburu gogoangarria.

Hurrengoan, Santoñara bidean, itxi gabeko zaurien literatur lanez mintzatu-ko gara.

Patxi Larrión



Bilbo erori bezain pronto Carlton hotelean Lehendakariak zuen egoitzako kartela kendu eta Espainiako bandera jarri zuten.

zubien kontrakoak. Nerbioiko bi aldeak lotzen zituzten Bilboko sei zubiak, goizeko 2:00etan eztanda ikaragarrien artean hondoratu zituzten. Bestalde, Larrinagako kartzelan zeuden presoak frankisten erremue-tara eraman zituzten, Patxi Gorritxo eta hainbat gudarik babestuta, eta libre utzi zituzten Leizaolaren aginduz.

Ordu batzuk beranduago, Deustutik eta Begoñatik, Atxuritik eta San Frantziskotik, brigada frankistak Bilbon sartu ziren. Udaletxean *piperpotoa* jarri orduko Bilbon gelditutako hainbat batailoik errenditzeko nahia adierazi zuten. Izan ere, gudariak eta milizianoak, beraien nagusien antzera, garaituta bezain zatituta azaldu ziren ordu lazarri haietan. Gehienek Kantabria aldera jo zuten arren, gutxi batzuk Bizkaian amaitu nahi izan zuten gerra. Otxandiano, Saseta, Amuategui eta Malatoko gudari eta miliziano gehienek, esate baterako, etsipenak jota, Bilbon bertan abandonatu zituzten armak. Oraindik ez zekiten frankistentzat gerra ez zela frontera mugatzen. ■



aurrera doan
herria

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

Oroimen bizia
1936 - 2006
Memoria viva